



## LAN TALDEAREN BILERA

DATA: 2015-07-14

BILERA ZENBAKIA: 22

ORDUA ETA LEKUA: Udaletxean, arratsaldeko 19,00tan

PARTEHARTZAILEAK: 5 emakume eta 1 gizonezko

## EGINDAKO LANAREN LABURPENA

### LANDUTAKO GAI ORDENA

1. DENBORAREN BANKUA.
2. HERRIKO JAIETARAKO BOKATA JANA ANTOLATZEN HASI.
3. EUSKO JAURLARITZAREN OSASUN SAILEKO DIRU LAGUNTZAK.
4. DESFIBRILADOREA.

#### 1) DENBORAREN BANKUA

Irailerako gai ordenerako utzi da.

#### 2) HERRIKO JAIETARAKO BOKATA JANAREN ANTOLAKETA

Joan den urtean bezela aurten ere Ongizate lan taldean hartu du ardura eta biltzen den dirua "ITSASONDOKO HERRITARREN ONGIZATERAKO" izango da.

Gutxi gora behera 250 bokata salduko direla hartuko dugu kontutan (200 xolomo eta 150 hirugiharra). Antolaketa honela geratu da:

EGINBEHARREKOA	ZER	NORK
OSAGIAK EROSI	OGIA - 100 ogi barra (Lurdes janaridenda) SERBILLETAK - 4 pakete (Lurdes janaridenda) OLIOA - 1 botela (Lurdes janaridenda) XOLOMOA - 600 lontxa HIRUGIHARRA - 150 lontxa GAZTA - 3 barra PIPERRAK - 3 lata	ROSI - ERKUDEN
GAUZAK PRESTATU	Sua (plantxa), mostradorerako mahaiak, hesiak...	JESUS MARI
	Diruarentzako kaja, tikeak, bokata kartela, erretiluak, labanak, trpuak...	ERKUDEN
LAGUNTZAILEAK 4 emakumezko 4 gizonezko	Xolomoa egiten → 2 pertsona	
	Ogia moztu eta bokatak egiten → 1 pertsona	
	Bokatak egiten → 2 pertsona	
	Bokatak banatzen → 2 pertsona	
	Tikeak banatu eta dirua jasotzen → - 2 pertsona	NERABEAK



PANKARTA	<b>BOKATA JANEAN BILDUKO DEN DIRUA ITSASONDOKO HERRITARREN ONGIZATERAKO ERABILIKO DA</b>	
MAHAI ETA AULKIAK	Musika ekipoko kideentzako (16) eta Tipi Tapa taldearentzako (+-15) mahai eta aulkiak jarri erreserbatuta.	

#### KONTUTAN HARTU BEHARREKOAK:

- Musika ekipoko kideei eta Tipi Tapako kideei bokatak emango zaizkie. Musika ekipoko kideak 18 izango dira denera eta Tipi Tapakoak (+-)15.
- Laguntzaileei ere bokatak emango zaizkie (10).
- Jubilatuei aurreko urtean bezela laguntza eskatuko zaie.
- Nerabeei ere tikeak saltzeko laguntza eskatuko zaie.

### 3) EUSKO JAURLARITZAREN OSASUN SAILEKO DIRU LAGUNTZAK

Eusko jaurlaritzaren osasun sailak, jarduera fisikoa sustatzeko ekintzak gauzatzeko EAeko tokiko erakundeei diru-laguntzak emateko 2015 urteko deialdia argitaratu du:

Diruz lagunduko diren inbertsioak eta jarduerak ondorengoak dira:

a) Hirietan eta hiri-inguruetan ibilbideak edo pasealekuak egokitzeko eta dinamizatzeko programak eta esku-hartzeak, herritar guztiei zuzenduak; ibilbide horiek seguruak izango dira eta behar bezala seinaleztatuta egongo dira, ohiko joan-etorrietan mugikortasun aktiboa errazteko eta aisialdi aktiboa sustatzeko.

b) Esku-hartze komunitarioko tokiko sare edo talde bat, diziplina anitzekoa eta sektoreartekoa, sortzeko beharrezkoak diren jarduerak. Tokian-tokian jarduera fisikoa sustatzeko eta sedentarismoa prebenitzeko ekintzak eta estrategiak lehenetsi, planifikatu eta garatuko ditu sare horrek partaidetzazko prozesuen bidez.

Eskabideak aurkezteko epea hilabete izango da, uztaileak 25 arte.

Diru-laguntzen gehieneko zenbatekoak hauek izango dira:

c) 7.000 biztanle baino gutxiagoko toki-erakunde edo udalerriz gaindiko eremuetan, diruz lagundu daitezken gastuen zenbatekoaren %80 eman daiteke, baina, gehienez ere, 8.000 euro proiektuko.

Ongizate taldeko bileran ez bazen ere garbi ikusten diru laguntza hauek nola bideratu, azkenean Tipi Tapa programarekin lotu eta diru laguntza eskatzea erabaki da. Irailetik aurrera ekimenarekin jarraitzeko hitzaldiak, beste herrietako bidegorrietatik barrena ibilaldiak, monitoreekin beroketak, gimnasia etabar antolatzeko eskatuko dira diru laguntza hauek.

Lurralde antolamendua eta hirigintza lan taldetik bidegorrian eta herrian bankuak jartzeko erabiliko dituzte.



#### 4) DESFIBRILADOREA

Ikastaroa emango duen pertsonarekin hitz egin da eta prest azaldu da ikastaroa guk esaten diogun egunetan emateko. 2 ikastaro aurreikusten dira: bata udaleko langileekin eta bestea herritarrekin (beharrezkoa ikusten bada herritarrekin 2 saio egingo dira).

Desfibriladorea jartzeko lekua udaletxe barruko behe solairuan jartzea adostu da, kanpoan uzten bada lapurtu edo apurtzeko arriskua bait dago. Gaur egun udaleko sarrera nagusiko txartela herritar gehienok dugunez ez da inungo eragozpenik ikusten. Ikastaroa ematerako garaian ondo seinalatuko da tokia.

ETXEKO- LANAK	NOIZKO?	ZEINEK?
3.adineko personen egoeraren "argazki" bat prestatu	Irailak 8	Mertxe
Denboraren bankuko zirriborroa	Irailak 8	Haizea

#### HURRENGO BILERA

**Hurrengo bilera, Irailak 8-an egingo dugu, asteartea arratsaldeko 7tan Udaletxean.**

Gai ordena:

- Azkar azkar herriko jaietarako bokata janaren antolaketa errepasatuko da. Bokatan prezioa ere adostu behar da.
- Denboraren bankuko zirriborroa.
- Tipi Tapa programaren balorazioa eta jarraipena.
- Desfibriladorea erabiltzen ikasteko ikastaroen antolaketa.
- Aurrekontuen lanketarekin hasi.